

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Haurren harrera-programetarako 2019ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 462986

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi hau ALHAOn argitaratu aurreko urtebetean, gutxienez, Zuiako udalerrian etenik gabe errolatutako pertsona adindunak, oso egoera larrian dauden herrialdeetako adingaberen bat epealdi jakin batean zehar etxean hartuko dutela egiaztatzen badute, eta harrera irabazi asmorik gabeko elkarte, erakunde eta bestelako entitateen bermea badute.

Bigarrena. Xedea

Etxean hartutako adingabeen ongizatea sustatzea, eta Zuiako biztanleen artean elkartasunaren kultura sortzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 3.500 eurokoa da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa harreraren iraupenaren arabera izango da eta 250 (bi aste) eta 550 euro (zortzi aste edo gehiago) bitartekoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2019ko abuztuaren 30 baino lehen.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

Alkate-Udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA